

# Herri txiki

Sebastian Lizaso Iraola



*Herri txiki, infernu handi* dio esaerak, baina herri txiki ederrez josia dugu Euskal Herria.

Sebastian Lizaso plazaz plaza dabil urtetan eta berak ezagutzen du, inork baino hobeto, bakoitzaren berri!

**Doinua: Horra bildots eztia**

**Kopla txikia**

**Herri txikien berri  
goazen ikastera  
aldea dagolako  
batetik bestera**

- 1 Goizuetan xapoak saltoka-**saltoka** erreka ez den tokian aldapa **dago ta.**
- 2 Errezilen akerrak autoan ze **presa** bizitzen zaila omen ta hiltzen **erreza.**
- 3 Zaldibin arkakoso talde **dotorea** ta bertaratzen denak nonahi **azkurea.**
- 4 Ibarra berriz dago piperrez **betea** berotzen dakitenak atzeko **atea.**
- 5 Ituren ta Zubietan zarata **nagusi** haurrak jaiotzen dira joare ta **guzi.**
- 6 Baztan inguruetan muga **gehienean** jendea abila da gaueko **lanean.**
- 7 Alduden, Bankan edo eta **Urepelen** negua iristean ura da **epelen.**
- 8 Donibane Garazi berezi **benetan** azokaz festa dute astelehen **denetan!**
- 9 Abadiñon San Blasek feriaren **fama** lehoien domaleku beti da **Lezama.**
- 10 Arratia bailaran hor da **Zeanuri** Gorbeiaren azpian altxor bat **dirudi.**
- 11 Agurainen kondeak omen dira **denak** Dulantzikoak tripa fina **daukatenak.**
- 12 Kakanarruak dira **Zalduondokoak** ta ausartak Araian ondo-**ondokoak.**